



**Koordinaziorako Idazkaritza Teknikoa**  
Secretaría Técnica de Coordinación

Príncipe, 5 - 7. solairua. 702 bulegoa  
48001 Bilbao  
Tfnoa.: 944 245 656  
Fax: 944 232 663  
sarea@factoria-aic.com

**SAREA EUSKAL ANTZOKIEN SAREKO PANORAMIKA:**  
EAEko arte eszenikoak laguntzeko  
erakunde arteko plataforma

**2015 Txostena**

euskadiko antzoki sare ar red vasca de teatros

# Aurkibidea

<b>1. Aurkezpena</b>	<b>3</b>
<b>2. Metodologia, azterketa-aldagaiak eta adierazleak</b>	<b>4</b>
2.1. Azterketa-aldagaiak eta adierazleak	5
<b>3. SAREako antzokien ezaugarritzea</b>	<b>8</b>
<b>4. Eraitza orokorrak EAEko esparruan</b>	<b>9</b>
4.1. Jardueraren adierazleak	9
4.2. Adierazle ekonomikoak	10
<b>5. Eraitzak, antzokiari loturiko aldagaien arabera</b>	<b>11</b>
5.1. Antzokien mailak	11
5.2. Lurralde Historikoa	14
5.3. Udallerriaren tamaina	16
<b>6. Eraitzak, jarduerari loturiko aldagaien arabera</b>	<b>18</b>
6.1. Generoa	18
6.2. Ikusle mota	21
6.3. Hizkuntza	23
6.4. Konpainiaren jatorria	26
<b>7. Gehien programatutako ikuskizunen Ranking</b>	<b>29</b>

## Aurkezpena

Dokumentu honek SAREA antzokien sareko eremuan 2015ean lortutako emaitzak aurkezten eta aztertzen ditu.

SAREA Euskal Antzokien Sarea, 1993. urtean sortua, erakunde arteko entitatea da eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak, Foru Aldundietako kultura sailek eta Euskal Autonomia Erkidegoko Udalek osatzen dute. Gaur egun, SAREA titulartasun publikoko 61 antzokiz eta aretoz osatuta dago, eta haren eginkizunak dira kalitatezko eta intereseko arte eszenikoetako programazio egonkorra koordinatzea, bultzatzea eta hedatzea, giza zein ekonomia-baliabideak optimizatuz eta arte eszenikoetako eremuan publikoa sortuz eta trebatuz.

Sareari loturiko antzokiek garatutako jarduera eszenikoari buruzko urteko txostena prestatzea Koordinaziorako Idazkaritza Teknikoaren eginkizunetako bat da. Bertan, sareko antzokiek 2015. Urtean izandako jarduerari buruzko zifra nagusiak aurkezten dira, aurreko ariketen datuekiko alderaketa, eta informazio hori aztertuz lortutako ondorio nagusiak aztertzen dira. Txosten hau eratzearen helburua, antzokiei ondorengo faseetan programazio-lana erraztuko dien urteroko tresna eskaintzea da eta, baita sektoreari berari nahiz gizarteari EAEn arte eszenikoen egoera ezagutzera eramatea.

Azkenik, Idazkaritza Teknikoak esker ona adierazi nahi die programatzaile guztiei eta Sareako gainerako kideei, eskaintako laguntzagatik eta gure informazio-eskariei erantzuteko adierazi duten pazientzia amaiezinagatik.

## Metodologia, azterketa-aldagaiak eta adierazleak

Txosten honetan aurkeztutako datu kuantitatibo nagusiak Sareako antzoki eta aretoek erraztutako datuetatik eskuratu dira. Datuak ustiatu aurretik, programatzaileekin batera baliozkatu dira beharrezkoa izanez gero, osatu edo zuzendu ahal izateko. Gainera, informazio osoa eskuratzeko aukeratik egon ez denean, bigarren mailako informazio-iturrien bidez osatu da; adibidez, jarduera-txostenen, programazioen edo dosierren bidez. Horretaz gain, ikuskizunen aldagai zehatzagoak landu dira (generoa, ikusle mota edo konpainiaren jatorria, adibidez), eta, analisia erabilgarria izan dadin, aurkitutako akats guztiak zuzendu dira eta informazio guztia bateratu eta berdindu da.

Gure informazio-eskariak erantzun-maila altua izan badute ere, kontuan izan behar dugu ez direla sareko antzoki eta eginkizun guzti-guztiei buruzko datuak jaso. Zehazki, 2015. urtean, jarduera-adierazleei dagokienez, antzokien %93ari buruzko informazioa jaso da, datu ekonomikoei dagokienez, ordea, antzokien % 77ari buruzko datuak jaso dira. Azken kasu horretan, hiriburuetakako antzokiei buruzko datuak falta dira eta, horrenbestez, ezinezkoa izan da bi adierazle motei (ekonomikoak eta jarduerari lotutakoak) buruzko erlazorik edo alderaketarik egitea, mailaren arabera bereizitako datuen kasuan izan ezik.

Azkenik, 2015eko datuak alderatzen ditugunean, datuok antzoki berberenak ez direla izan behar da kontuan, eta, beraz, ez gaudela hauen eboluzioa aztertzen, baizik eta sarearen orokorreko panoramikaren eboluzioa.

## 2.1. Azterketa-aldagaiak eta adierazleak

Honako taula honetan azterketa kuantitatiboa egituratzen duten epigrafeak eta aldagaiak azaltzen dira.

Epigrafea	Aldagaia	Adierazlea
Sareko antzokien ezaugarritzea	Lurralde Historikoa Eskualdea	Antzoki kopurua Estdura
EAE esparruko emaitza orokorrak	EAE	<b>Jardueraren adierazleak</b> Emanaldi kopurua Ikusle kopurua Ikusle kopurua emanaldiko <b>Adierazle ekonomikoak</b> Diru-sarrerak Diru-sarrerak emanaldiko Kostuak Kostuak emanaldiko Kostuen estaldura-tasa (sarrerak/kostuak)
Emaitzak, antzokian loturiko aldagaien arabera	Maila <sup>1</sup> Lurralde Historikoa Udalerrriaren tamaina	
Emaitzak, jarduerari loturiko aldagaien arabera	Generoa Ikusle mota Hizkuntza Konpainiaren jatorria	

<sup>1</sup> Antzokiko eserleku kopuruak eta aurrekontuak definitzen dute maila.

Txostena ulertzen laguntzeko, bertan erabilitako aldagai eta adierazle batzuk zehaztuko dira jarraian

### Aldagaiak

- **Lurralde Historikoa:** Informazioa probintziaren arabera banatuta (Araba, Bizkaia, Gipuzkoa).
- **Eskualdea:** Hiru Lurralde Historiko bakoitzeko banaketa administratiboa. EUSTATEk erabilitako sailkapena hartu da erreferentziako esparrutzat.
- **Maila:** Sareko antzokiak lau mailatan sailkatzen dira urtean programatutako emanaldi kopuruaren eta kontratazio-gastuen arabera: A, B, C eta hiriburuak. Probintzietako hiriburuak, euren programazio-dinamika formatu handiko ikuskizunetara bideratuta dagoenez eta horrek aurrekontu handiagoa suposatzen duenez, kategoria espezifikoa dute. Hortaz, honela sailkatuko ditugu antzokiak:

Maila	Emanaldi kopurua	Kontratazio-gastuak
Hiriburuak	50 emanalditik gora(*)	200.000€tik gora (*)
A	50 emanalditik gora	200.000€tik gora
B	20-50 bitarteko emanaldi	50.000€ - 200.000 € bitartean
C	20 emanalditik behera	50.000€tik behera

- **Udalerrien tamainia:** Udalerriak biztanle kopuruaren arabera sailkatu dira, ondorengo taulan azaldutako eremuen arabera:

Udalerriaren tamaina
7.500 biztanle arte
7.501-25.000 biztanle
25.001-100.000 biztanle
100.000 biztanletik gora

- **Generoa:** Arte eszenikoen barruko arte-diziplinaren arabera, ikuskizunak honako genero hauetan sailkatu dira: antzerkia, dantza, lirika eta musika
- **Ikusle-mota:** Ikusleen adinaren arabera, ikuskizunak honela sailkatzen dira: Haurrentzakoak eta Helduentzakoak/Gazteentzakoak.
- **Hizkuntza:** Ikuskizunak antzezten diren hizkuntzaren arabera, honako hauek bereizi dira: euskara, gaztelania, testurik gabe, bestelakoak eta orotarikoak. Gainera, antzoki batzuetan ikuskizun berberaren hainbat emanaldi programatu dira, horietako batzuk euskaraz eta beste batzuk gaztelaniaz. Halakoetan, datuak bereizteko aukerarik egon ez denean, “euskaraz eta gaztelaniaz” epigrafea erabili da.
- **Konpainiaren jatorria:** Konpainiak honako kategoria hauetan sailkatu dira jatorriaren arabera: Euskal Herria, gainerako Estatua eta atzerria.
- **Katxeta-tartea:** Ikuskizunen formatuaren arabera gutxi gorabeherako analisia errazteko asmoz, ondorengo taulan adierazten diren tartetean sailkatu dira emanaldien katxetak:


Katxeta-tartea
0-1.500€
1.501-4.000€
4.000€tik gora

**Adierazleak:**

- **Antzoki kopurua:** titulartasun publikoko eta 2013., 2014. eta 2015. urteetan programazio profesional egonkora izan duten EAeko antzokiei deritze.
- **Estaldua:** Antzokiaren edukieraren (besaulki kopuruaren) eta eremu geografikoko biztanleriaren (Autonomia Erkidegoa, Lurralde Historikoa, lurraldea edo udalerrria) arteko erlazioa
- **Emanaldi kopurua:** Antzokietan eskainitako antzezpen kopurua. Kaleko ikuskizunak ez dira kontuan hartu, baina hartu dira kontuan, aldiz, antzokiek beste eremu batzuetan antolatutakoak, hala nola, kiroldegietan, pilotalekuetan, etab.
- **Emanaldi bakoitzeko ikusle kopurua:** Ikusle kopuruaren eta emanaldi kopuruaren arteko zatidura.
- **Diru-sarrerak:** Txarteldegian lortu den diru-bilketa.
- **Emanaldi bakoitzean lortutako diru-sarrerak:** Diru-sarreraren eta emanaldi kopuruaren arteko zatidura.
- **Ikusle bakoitzeko lortu diren diru-sarrerak:** Diru-sarreraren eta ikusle kopuruaren arteko zatidura.
- **Kostuak:** Konpainiaren katxeta baino ez du hartzen. Ez dira kontuan hartu beste gastu batzuk, hala nola: dietak, egilearen kostuak etab., ez dugulako irizpide bateratu baten bidez antzoki guztietarako balio izango duten datu homogeneorik.
- **Emanaldi bakoitzeko kostuak:** Kostuen eta emanaldi kopuruaren arteko zatidura.
- **Ikusle bakoitzeko jasandako kostuak:** kostuen eta ikusle kopuruaren arteko zatidura.
- **Kostuen estaldura-tasa:** Txarteldegiko diru-bilketak zer ehunekotan estaltzen dituen konpainiak kontratatzekeo kostuak (sarrerak/kostuak).

# SAREAko antzokien ezaugarritzea

SAREAko antzokien banaketa formatuaren arabera



SAREAn dauden Antzoki kopuruaren bilakaera

Urtea	1997	2005	2010	2015
Sareako Antzoki kopurua	29	40	50	61

- SAREA, EAEko kultura-ehunean haren agerpena finkatuz doan erakunde arteko plataforma, titulartasun publikoko 61 antzokiek eta aretoek egin osatutako sarearen bitartez.
- Bilakaerari erreparatuta, euskal udalerrien kultura-dinamizaziorako ezinbesteko tresna gisa finkatuz joan da Sarea urteen poderioz, 1997an titulartasun publikoko 29 antzokiz eta aretoz osatuta egoteaz, 2015ean 61ek osatzera pasatuz. Haren eragina, euskal hiru hiriburuetan ez ezik, hiru Lurralde Historikoetan banatuta dauden tamaina guztietako 49 udalerritan eman ohi da.
- Zehazki, sareko antzokien eta aretoen zati handiena erdizka kokatzen da Gipuzkoan eta Bizkaian (%44 eta %43 hurrenez hurren), eta neurri txikiagoan Araban (% 13, 8 antzokiei dagokiona, eta hauetako 8 Vitoria-Gasteizen daudelarik).
- Antzoki eta areto gehienak (% 47,5) 7.500 eta 25.000 biztanleren bitarteko udalerrietan kokatzen dira.
- Sareak lau mailatan sailkatzen ditu antzokiak formatuaren arabera (hiriburuak, A maila edo handiak, B maila edo ertainak, C maila edo txikiak). Sailkapen horri jarraituz, **sareko antzokien erdia formatu txikikoak -C maila- dira** (urtean 20 emanalditik behera egin ohi dute eta 50.000 €-tik behera gastatzen dute kontratazioetan). Bestalde, heren bat (% 33) formatu ertainekoak -B maila- dira (urteko emanaldi kopurua 20-50 bitartean dago eta kontratazio gastua 50.000€-200.000€ bitartean). Gainerako antzokiak -A maila- hiriburuetan edo haien metropoli-barrutian kokatzen dira eta horien urteko emanaldi kopurua eta kontratazio gastua askoz ere handiagoak dira (50 emanalditik gora eta 200.000€-



## Emitza orokorrak EAeko esparruan

### 4.1. Jardueraren adierazleak

- 2015. urtean, 475.594 ikusle egon dira Euskadiko Antzoki Sareak eskaini dituen 1.744 emanaldietan. 2014. urteko zifrarekin alderaturik, ikusle kopuruan murrizketa leuna hautematen da, emanaldi kopurua zerbait handitu den bitartean.
- 2014. urtean emanaldi bakoitzeko ikusle kopuruaren aldagaiak suspertze arina adierazi bazuen ere, 2015ean aldagaia, emanaldiko 272 ikuslerekin, berriz ere txikitzen da, 2013ko emaitzetara hurbilduz.
- 2012ko egoeraren aldean, emanaldi zein ikusle kopuruek suspertzea adierazten dute, zehazki %7ko eta %1eko hazkundera, hurrenez hurren. Honek, logikoki, emanaldi/ikusle tasa txikiagoa dakar, %5ekoa hain zuzen.

## 4.2. Adierazle ekonomikoak

### Adierazle ekonomiko nagusien bilakaera (hiriburuak kanpo utzita<sup>1</sup>)

Adierazlea	2012	2013	2014	2015	2012-2015
Diru-sarrerak emanaldiko	1.381,97 €	1.224,85 €	1.329,79 €	1.288,03 €	%-6,8
Diru-sarrerak ikusleko	7,92 €	7,52 €	7,34 €	7,48 €	%-5,6
Kostuak emanaldiko	3.588,25 €	3.255,25 €	3.221,15 €	3.304,22 €	%-7,9
Kostuak ikusleko	20,57 €	19,99 €	17,78 €	19,20 €	%-6,7
Kostuen estaldura %	%38,5	%37,6	%41,3	%39,0	

- Emanaldien errentagarritasunak jaitsiera leuna izan du; txarteldegian lortutako diru-sarrerak kontratazio-gastuen %40a baino gutxiago estaltzen dute berriz ere.
- Emanaldiko lortutako diru-sarrerak murriztu dira, ikusleko diru-sarrerak pixka bat handitu diren bitartean. Murrizketa honen arrazoia, 2015. urtean zehar antzokietara ikusle gutxiago hurbildu izana da.
- Bestalde, 2012. urtetik, lehen aldiz, kontratazio gastu edo kostuen batezbestekoa aurreko urtekoak baino handiagoa da (zehazki, areagotze hau %2,6koa izan da). Honen arrazoia ikuskizunen katxeten igoera izan daiteke edo formatu handiko ikuskizunen kontratazio bolumena handitu izana.

<sup>1</sup> Datu ekonomikoen oinarria 47 antzokiz osaturik dago, kanpoan utzi dira hiriburuaren datuak.

## Emaitzak, antzokiari loturiko aldagaien arabera

### 5.1. Antzokien mailak

**B eta C mailako antzokiak (formatu ertain eta txikikoak) SAREaren eskaintza eszenikoaren %50 inguru eta ikusle kopuruaren ia %25a suposatzen dute.**

Hirietako antzokiek Sarearen eskaintzaren %38a eta ikusleen %61a erakartzen dute, 434 ikusle emanaldi bakoitzeko batez bestekoarekin.

Bestalde, A mailako antzokiek, hau da, hirietan ez dauden formatu handiko antzokiek (50 emanaldi baino gehiago eta 200.000€ baino gehiagoko aurrekontua) emanaldien %16a baino gehiago eta ikusleen %14 inguru biltzen dituzte. Datu hauek esanguratsuak dira maila honetan 4 antzoki soilik daudela kontuan izaten badugu.

B eta C mailako antzokiak (50 emanaldi baino gutxiagoko urteko programazioa eta 200.000€ baino gutxiagoko aurrekontua dutenak), nahiz eta emanaldi bakoitzeko ikusleen batez besteko baxuenak izan, 175 eta 128 hurrenez hurren, tokiko eta inguruneke herritarrei arte eszenikoen gerturaketan tresna oso garrantzitsua izaten jarraitzen dira, eta urtean zehar ikusle kopuru garrantzitsua hurbildu dute (120.792) programaturako 796 emanaldietara.


**2015eko ikusle kopuruaren murrizketa tamaina ertaineko eta hiriburuetakoko antzokien emaitzen ondorio dira. Beste antzokiek, emaitza positiboak lortu dituzte.**

Antzoki ertainetara eta hiriburuetakoko antzokietara gerturatu diren ikusleen %20ko eta ia %5eko murrizketak, 2015eko ikusleen kopurua, 2014koekin alderaturik, jasan duten murrizketaren arduradunak dira. Antzoki ertainen kasuan, jaitsiera hau denboraldi honetan garatutako ikuskizunen murrizketaren ondorio da baina baita ikusle/emanaldi ratioaren murrizketarena ere. Hiriburuetakoko antzokien kasuan, emanaldi kopurua ugaritu da 2015 urtean zehar.


A eta C mailetakoko antzokien datuak egonkorragoak dira. Nabarmentzekoa da formatu txikiko antzokiak ikusle/emanaldiko ratioa hobetu duten bakarrak izan direla, urteko %5eko baino gehiagoko igoerarekin. Bestalde, A mailako antzokiak euren emanaldiko ikusle kopuruaren galera egonkor baina leuna mantentzen dute (%-5,7a, 2012an baino 7 ikusle gutxiago).

## 2015eko emaitzak

Emanaldi zbkia.: 1.744



Ikusle zbkia.: 475.594



## Emanaldi bakoitzeko batez besteko ikusle kopuruaren ratioa 2015

Hiriburueta ko antzokiak	433,80
Formatu handiko antzokiak	232,94
Formatu ertaineko antzokiak	174,55
Formatu txikiko antzokiak	127,53

Oinarria: 2012-2015 denboraldiaren bitartean informazioa eskaini duten 46 antzoki

## Bilakaera 2012-2015 (%)

Adierazleak	Urtea				Bilakaera 12-15
	2012	2013	2014	2015	
<b>Emanaldi kopurua</b>					
Hiriburueta ko antzokiak	%46,60	%39,82	%37,33	%41,00	%-10,8
Formatu handiko antzokiak	%15,95	%16,43	%16,09	%17,27	%9,8
Formatu ertaineko antzokiak	%22,12	%25,09	%26,04	%25,20	%15,5
Formatu txikiko antzokiak	%15,33	%18,65	%20,54	%16,53	%15,9
<b>Ikusle kopurua</b>					
Hiriburueta ko antzokiak	%67,22	%63,43	%60,64	%63,00	%-8,2
Formatu handiko antzokiak	%13,49	%14,18	%12,90	%14,25	%3,5
Formatu ertaineko antzokiak	%12,98	%15,04	%17,92	%15,58	%17,7
Formatu txikiko antzokiak	%6,31	%7,35	%8,55	%7,17	%18,3

- Azkenik, 2012. urtetik lortutako emaitzak aztertu ondoren, formatu txikiko antzokiak ikusle/emanaldiko ratioa hobekuntza joera egonkorra mantentzea lortu duten bakarrak izan direla ikusi da, %2,1eko igoerarekin, 2012ko datuekin alderatuz. Baina, orokorrean, formatu handiko antzokiak izan ezik, formatu guztien ratioek 2012an baino emaitza hobea lortu dituzte.

## Adierazle ekonomikoen bilakaera 2012-2015

Adierazleak	Urtea				Bilakaera
	2012	2013	2014	2015	
<b>Diru-sarrerak emanaldiko</b>					
A mailako antzokiak	2.523	2.408	2.480	2.423	%-4,0
B mailako antzokiak	1.227	1.010	1.251	1.117	%-9,0
C mailako antzokiak	646	579	630	724	%12,0
<b>Kostuak emanaldiko</b>					
A mailako antzokiak	5.262	5.236	5.053	5.043	-0,2%
B mailako antzokiak	3.302	2.838	3.058	3.029	-0,9%
C mailako antzokiak	2.644	2.352	2.141	2.536	18,4%
<b>Kostuen estaldura %</b>					
A mailako antzokiak	%48,0	%46,0	%49,1	%48,0	%-2,1
B mailako antzokiak	%37,2	%35,6	%40,9	%36,9	%-9,9
C mailako antzokiak	%24,4	%24,6	%29,4	%28,5	%-2,9

Oinarria: 2012-2015 denboraldiaren bitartean informazioa eskaini duten 49


### Antzokiaren formatua handiagoa izan ahala, emaitza hobegoak

- Orkorrean, maila guztietan emanaldien errentagarritasun ekonomikoan murrizketa leuna antzematen da.
- A mailako antzokiak kontratazio kostuen %50aren inguruko estaldura tasa lortu dute, 2014ko kopurua baino zerbait gutxiago katxeten murrizketak emanaldiko diru-sarreraren murrizketak baino txikiagoak izan bait dira. Bestalde, emanaldiko batezbesteko diru-sarrerak, 2012koak baino %4 urriagoak dira, ikusleko diru-sarreraren batezbestekoa 10,4€koa izanik, 2014 datua baino zerbait txikiagoa ere.
- B mailako antzokietan, emanaldi bakoitzeko batez besteko diru-sarreak murrizketa bat adierazten dute pasadan urteko datuekin alderaturik, berriz ere 1.200€z azpitik kokatzen direlarik, nahiz eta ikusleko lortutako diru-sarrerak zerbait handiagoak izan diren (6,4€). Honek adierazten diguna, batez besteko diru-sarreraren murrizketa emanaldiek erakarri dituzten ikusleen murrizketak sortu duela da. Bestalde, estaldura-tasa 2014koa baino baxuagoa da, %40z azpitik kokatzen delarik.
- Azkenik, C mailako antzokiak, logikoa denez, emanaldi bakoitzeko batez besteko diru-sarrera eta kostu txikiak erakusten dituzte, baina 2015ean zehar desberdintasun hori murriztu da, kopuru biak handitu baitira; beste antzokiaren alderantziz. Estaldura-tasak, 2014.urtearekin alderatuz, murrizketa leuna jasan du, baina 2012ko emaitza baino hobegoa izaten jarraitzen du, % 30 erdietsiz.


## 5.2. Lurralde historikoa

## 2015eko emaitzak

## Emanaldi kopurua:



## Ikusle kopurua: 475.594



## Emanaldi bakoitzeko batez besteko ikusle kopuru Ratioa 2015

Araba	402,34
Bizkaia	269,43
Gipuzkoa	214,92

Oinarria: 2012-2015 urteetan zehar informazioa erraztu duten 46 antzokik

## Bilakaera 2012-2015 (%)

Adierazleak	Urtea				Bilakaera 12-15
	2012	2013	2014	2015	
<b>Emanaldi kopurua</b>					
Araba	%15,08	%15,73	%15,27	%14,75	%-0,8
Bizkaia	%49,35	%50,76	%50,85	%52,49	%7,8
Gipuzkoa	%35,58	%33,51	%33,88	%32,76	%-6,7
<b>Ikusle kopurua</b>					
Araba	%18,77	%21,16	%21,50	%23,30	%21,6
Bizkaia	%53,26	%53,72	%48,92	%51,09	%-6,0
Gipuzkoa	%27,97	%25,12	%29,58	%25,61	%-10,3

Oinarria: 2012-2015 urteetan zehar informazioa erraztu duten 46 antzokik

- 2015eko emaitzak Lurralde Historikoaren arabera aztertuz, azpimarra daiteke Bizkaiko antzokietan bildu dela jardueraren erdia inguru (emanaldien %50,8a eta ikusleen %50,2a), ondoren Gipuzkoa (%33,2 eta %26,1 hurrenez hurren) dago eta, azkenik, Araba, non jarduera bereziki hiriburuan biltzen baita (%16,1 eta %23,7).
- Hiru Lurraldetatik 2012arekiko eskaintzaren bilakaera positiboa izan duen bakarra Bizkaia izan da, nahiz eta Araban 2012an baino bi ikuskizun gutxiagoko murrizketa izan den, Gipuzkoan gertatutako ia %7ko jeitsierarekin alderatuz.
- Publikoaren datuen bilakaerari begiratu, hiru Lurralde Historikoetan murrizketa aurkitzen dugu urtean zehar. Baina esparru hori hau handituz gero eta 2012. urteko datuekin alderatuz gero, Araban ikusle kopurua %20 baino gehiago handitu dela antzeman dezakegu; Bizkaia eta Gipuzkoak publikoaren %6a eta %10a, galdu duten bitartean, hurrenez hurren.

## Adierazle ekonomikoen bilakaera 2012-2015

Adierazleak	Urtea				Bilakaera 12-15
	2012	2013	2014	2015	
<b>Diru-sarrerak emanaldiko</b>					
Araba	-	-	-	756	-
Bizkaia	1.502	1.366	1.485	1.494	%-0,5
Gipuzkoa	1.165	997	1.112	944	%-18,9
<b>Kostuak emaldiko</b>					
Araba	-	-	-	1.985	-
Bizkaia	3.878	3.671	3.639	3.736	%-3,6
Gipuzkoa	3.136	2.546	2.579	2.680	%-14,5
<b>Kostuen estaldura %</b>					
Araba	-	-	-	%38,1	-
Bizkaia	%38,7	%37,2	%40,8	%40,0	%3,3
Gipuzkoa	%37,1	%39,28	%43,1	%35,2	%11,9

Oinarria: 2012-2015 urteetan zehar informazioa erraztu duten 46 antzokik

- Datu ekonomikoei erreparatuz, emanldi bakoitzeko batez besteko diru-sarrerak aldeko joera izan dute bai Bizkaian bai Gipuzkoan 2014eko emaitzekin alderaturik, nahiz eta 2012an lortutako kopuruak oraindik ez baitituzte erdietsi ere.
- Bestalde, emanldi bakoitzeko batez besteko kostuak areagotu dira ere hiru Lurralde Historikoetan, baina baita 2012ko kopuruak baino baxuagoak dira ere.
- Estaldura-tasek atzera pausua eman dute berriro ere Bizkaian eta Gipuzkoan, 2014an lortutako hobekuntzaren ondoren; hortaz, %40 eta %35,2 izatera pasatu dira, hurrenez hurren.
- Bai batez besteko kontratazio-kostuak bai ikusle bakoitzeko batez besteko diru-sarrerak altuagoak dira Bizkaian, eta logikoa da kontuan hartuta Gipuzkoak formatu txikiko antzoki kopuru handiagoa biltzen duela eta Bizkaiko antzokiek jasotzen dituzten programaziorako laguntzak oparagoak direla.

### 5.3. Udalerraren tamaina

Biztanle bitarteko tartea	Ikusleak	Emanaldiak	Ikusleak/ emanaldiak
0-7.500	22.100	201	109,95
7.501-25.000	69.383	430	161,36
25.001-100.000	94.766	446	212,48
100.000 <	289.345	667	433,80

Oinarria: 2012-2015 urteetan zehar informazioa erraztu duten 46 antzokik

- Udalerrien tamainaren araberako azterketa antzokien mailaren araberakoaren antzekoa da oro har. 100.000 biztanletik gorako udalerriek eskaintzaren %38 eta ikusleen %60a baino gehiago hartzen dute. Udalerraren tamaina handiagoa izan ahala, ikusle/emanaldiaren adierazlea handiagoa da ere.
- Bilakaerari dagokionez, nabarmentzekoa da azken urtean 25.001 eta 100.000 biztanle bitarteko udalerriak eskaintza murriztu duten bakarrak izan direla eta, bestetik, 25.000 biztanletik gorakoetan ikusle kopurua txikitu dela. Analisia 2012tik gertatutako bilakaerara zabaltzen badugu, soilik udalerrri handienek izan dute eskaintza eta erakarrirako ikusleen kopuruen bilakaera negatiboa.
- Udalerrri txikienetan emanaldi bakoitzeko ikusleen adierazlea nabarmenki hobetu da, %8,4 2014ko datuekin alderatuz eta %13,6 2012rekin alderatuz. Gainerako tarreetan, aldiz, azken urte honetan murrizketa aurkitzen da, 100.000 biztanletik gorako udalerrrietan bereziki.



## Adierazle ekonomikoen bilakaera 2012-2015

Adierazleak	Urtea				Bilakaera
	2012	2013	2014	2015	
<b>Diru-sarrerak emanaldiko</b>					
0-7.500	539	446	462	541	%0,4
7.501-25.000	1.156	928	978	1.050	%-9,2
25.001-100.000	1.962	1.819	1.911	1.927	%-1,8
100.000<	-	-	-	-	-
<b>Kostuak emaldiko</b>					
0-7.500	2.473	2.218	2.165	2.332	%-5,7
7.501-25.000	3.237	2.785	2.827	2.972	%-8,2
25.001-100.000	4.444	4.194	3.921	4.246	%-4,5
100.000<	-	-	-	-	-
<b>Kostuen estaldura %</b>					
0-7.500	%21,8	%20,1	%21,4	%23,2	%6,5
7.501-25.000	%35,7	%33,3	%34,6	%35,3	%-1,1
25.001-100.000	%44,2	%43,4	%48,7	%45,4	%2,8
100.000<	-	-	-	-	-

Oinarria: 2012-2015 urteetan zehar informazioa erraztu duten 46 antzokik

- Datu ekonomikoei erreparatu, zenbat eta udalerrri handiagoa, diru-sarrerak eta emanaldi bakoitzeko batez besteko gastuak handiagoak dira. Baina ez dira linealki handitzen, horregatik, estaldura tasetan desberdintasunak aurki daitezke, nahiz eta udalerrriaren tamaina handitu ahala estaldura-tasa handitzen bada ere.
- Emanaldi bakoitzeko batez besteko diru-sarrerak 2012ko kopuruekiko parekatuta daude udalerrri txikienetan, beste biztanle-tarteetan<sup>1</sup> murriztu diren bitartean. Emanaldi bakoitzeko batez besteko gastuak handiagoak izan badira ere, 2012tik kasu guztietan murriztu dira.
- Azken urte honetan zehar, kostuen estaldura-tasak 25.000 biztanle baino gutxiagoko herrialdeetan hobetu dira. Bestalde, 25.000 eta 100.000 bitarteko biztanleak dituzten udalerriek %50eko estaldura-tasatik urruntzen dira berriz ere, 2014an erregistratutako hobekuntzaren ondoren.

<sup>1</sup> Ez da 100.000 biztanletik gorako tartea aztertu ez baitago eskura hiriburuetakako daturik


## Emaitzak, jarduerari loturiko aldagaien arabera

### 6.1. Generoa


- Antzerkiak Sareako kultura-eskaintzaren genero nagusia izaten jarraitzen du: eta neurri handiagoan gainera, 4 emanaldietatik 3 antzerkikoak direlarik.
- 2015. urte bitartean, 1.279 antzerki emanaldi eraman dira aurrera, Sarean presentziarik handieneko generoa izaten jarraitzen duena, eta 340.000 ikusle inguru biltzea lortu du. Nahiz eta azken urte honetan antzerkiaren pisu erlatiboak igo, guztirako emanaldi eta ikusleen kopuruak zerbait murriztu dira 2014ko emaitzekin alderatuz. Ikusleen kopuruak emanaldien kopuruak baino murrizketa handiagoa jasan duenez, emanaldi bakoitzeko ikusleen adierazleak %6,2ko jaitsiera izan du azken urtean. Hala ere, adierazleak 2012koa baino hobea (%3,3) izaten jarraitzen du.
- Dantzaren kasuan, 2015ean zehar 41.000 ikusle gerturatu dira diziplina honetako 180 ikuskizunak ikustera, Sareako jardueraren %10a gutxi gora-behera. 2014. urtearekin alderatuta, publikoak %4,5eko jaitsiera jasan du, 2012ko datuetatik distantzia nabarmenagoa eginez. Eskaintako emanaldiei erreparaturik, 2015eko eskaintzak aurreko urtekoak baino bi ikuskizun gutxiago izan ditu, baina emanaldi bakoitzeko ikusleen adierazleak 2012an erregistratutakoaren oso urrun jarraitzen du (-%26), emanaldi bakoitzeko 230 ikusle baino gutxiagoko tasarekin.

## 2015eko emaitzak

## Emanaldi kopurua: 1.744



## Ikusle kopurua: 475.594



## Emanaldi bakoitzeko batez besteko ikusle kopuru Ratioa 2015

Antzerkia	264,51
Dantza	227,89
Musika	265,49
Lirika	633,34

Oinarria: 2012-2015 urteetan zehar informazioa erraztu duten 46 antzokik

## Bilakaera 2012-2015 (%)

Adierazleak	Urtea					Bilakaera	Adierazleak	Urtea					Bilakaera
	2012	2013	2014	2015	12-15			2012	2013	2014	2015	12-15	
<b>Emanaldi kopurua</b>							<b>Ikusle kopurua</b>						
Antzerkia	%76,51	%73,80	%71,09	%73,26	%-2,9		Antzerkia	%67,84	%71,58	%69,28	%71,18	%2,8	
Dantza	%9,66	%10,12	%10,42	%10,51	%10,3		Dantza	%10,23	%7,26	%8,53	%8,57	%-17,9	
Musika	%10,65	%14,09	%15,10	%12,78	%21,6		Musika	%14,54	%14,75	%14,97	%12,53	%-15,6	
Lirika	%76,51	%73,80	%71,09	%73,26	%9,8		Lirika	%7,38	%6,41	%7,22	%7,72	%2,5	

Oinarria: 2012-2015 urteetan zehar informazioa erraztu duten 47 antzokik

- Musikak Sarearen programazioaren %13a hartzen du eta, era berean, ikusleen %13a erakartzen du. Haren eskaintza nabarmenki gehitu da 2012arekiko (%27,9). Batez besteko ikusle kopurua 2014ean nahiko egonkorra izan bazen ere, 2015ean emanaldiko 23 ikusleren murrizketa jasan du. Galera hau 2012ko emaitzekin alderaturik, adierazlearen jaitiera %30,6koa da.
- Lirikari dagokionez, emanaldien kopuruak garrantzi txikia du Sareako eskaintza osoan (eskaintzaren % 3 inguru). 2015ean zehar, genero honetako 56 ikuskizun garatu dira, 2012an baino 5 gehiago. Ikuskizun lirikoetara gerturatzeko diren ikusleak ere areagotu dira %2,5ean. Hala ere, emanaldi bakoitzeko ikusleen ratioa murriztu da (%6,7), nahiz eta azken urtean emanaldi bakoitzeko ia 9 ikusle gehiago erakartzea lortu duen. 630 ikusletik gorako batez bestekoa duelarik, lirikako ikuskizunek emanaldietara doazen ikusleen ratorik altuena dute.

## Adierazle ekonomikoen bilakaera 2012-2015

Adierazleak	Urtea				Bilakaera
	2012	2013	2014	2015	12-15
<b>Diru-sarrerak emanaldiko</b>					
Antzerkia	1.237	1.034	1.259	1.252	%1,2
Dantza	1.023	822	887	1.063	%4,0
Musika	2.036	1.952	1.472	1.317	%-35,3
Lirika	7.649	7.458	5.516	5.117	%-33,1
<b>Kostuak emanaldiko</b>					
Antzerkia	3.282	2.973	3.105	3.082	%-6,1
Dantza	3.384	2.787	2.340	3.402	%0,5
Musika	4.657	3.948	3.471	3.560	%-23,6
Lirika	14.825	16.145	10.900	11.990	%-19,1
<b>Kostuen estaldura %</b>					
Antzerkia	%37,7	%34,8	%40,5	%40,6	%7,7
Dantza	%30,2	%29,5	%37,9	%31,3	%3,4
Musika	%43,7	%49,4	%42,4	%37,0	%-15,4
Lirika	%51,6	%46,2	%50,6	%42,7	%-17,3

Oinarria: 2012-2015 urteetan zehar informazioa erraztu duten 46 antzokik

- Datu ekonomikoei dagokienez, lirika nabarmentzen da berriz ere batez besteko diru-sarrera eta kostu unitario altuenak izateagatik, baina bere kostuen estaldura-tasak %17ko jaitsiera izan du eta horrek kontratazio gastuen %50etik urrundu du, %43tik beherako tasaraino. Beste diziplinen batez besteko gastu eta diru-sarrerak nahiko antzekoak direla esan daiteke.
- 2012tik aurrera, antzerki inguruko datu ekonomikoak horrelako joera izan dute: batez besteko diru-sarrerak nahiko egonkor mantendu dira 1.200€en inguruan eta emanaldiko batez besteko kostuek %6,1eko murrizketa izan dute, gaurko batez besteko 3.0182€etan ezarri arte. Bigarren aldiz, aurten ere, kostuen estaldura-tasa pixka bat hobetu da eta %40a gainditzen du.
- Dantza eta musikaren kasuan, murrizketa garrantzitsuak antzematen dira, diru-sarrera zein gastuetan. Batez besteko katxeten jaitsiera %20aren ingurukoa (-%23,6 eta -%19,1ekoak hurrenez hurren) izan da eta batez besteko diru-sarrerena, %30a gainditzen dute (%35,3 eta %33,1). Hortaz, kostuen estaldura-tasak behera egin du eta musikaren kasuan %37an eta lirikaren kasuan %42,7an ezartzen da.

## 6.2. Ikusle mota

## 2015eko emaitza orokorrak ikusle motaren arabera

	Heldua/ Gaztea	Haurrak
Emanaldi kopurua	%65,7	%34,4
Ikusle kopurua	%71,4	%28,6
Emanaldi bakoitzeko ikusleen ratioa	296,7	226,9

Oinarria: 2012-2015 urteetan zehar informazioa erraztu duten 46 antzokik

## Bilakaera 2012-2014 ikusle motaren arabera

Adierazlea/Urtea	Urtea				Bilakaera 12-15
	2012	2013	12-15	2015	
<b>Emanaldi kopurua</b>					
Heldua/Gaztea	%69,97	%67,19	%70,22	%66,87	%-3,1
Haurrak	%30,03	%32,81	%29,78	%33,13	%11,8
<b>Ikusle kopurua</b>					
Heldua/Gaztea	%78,53	%74,47	%75,88	%72,25	%-9,8
Haurrak	%21,47	%25,53	%24,12	%27,75	%26,7
<b>Emanaldi bakoitzeko ikusleen ratioa</b>					
Heldua/Gaztea	327,80	302,29	316,24	305,02	%-6,9
Haurrak	208,77	212,29	236,94	236,45	%13,3

Oinarria: 2012-2015 urteetan zehar informazioa erraztu duten 49 antzokik

- Eskaintza eszeniko anitza publiko desberdinei erantzuten diena
- 2015ean Sarean programatutako ia 3 emanaldietatik 2 helduei/gazteei bideratutakoak dira, eta antzokietara gerturatu diren 10 ikusleetatik 7 helduak dira. Emanaldi bakoitzeko batez besteko ikusleen ratioan helduek ugariak izaten jarraitzen dute, baina lehen aldiz, distantzia hau laburtu da emanaldiko 70 ikusle baino gutxiagoko gakoarekin.
- Ikusle haurren batez bestekoa egonkor mantendu da, ikusle helduen artean emanaldi bakoitzeko 9 ikusleren jeitsiera jasan duten bitartean.
- Bestalde, haurrei zuzendutako programazioak emanaldiak gehitu ditu %12an 2012.urtetik, eta %27ko ikusleen igoerarekin batera gertatu denez, emanaldi bakoitzeko ikusleen ratioan hobekuntza nabarmena eman da.

## Adierazle ekonomikoen bilakaera 2012-2015

Adierazleak	Urtea				Bilakaera 12-15
	2012	2013	2014	2015	
<b>Diru-sarrerak emanaldiko</b>					
Heldua/Gaztea	1.795	1.598	1.635	1.633	%-9,0
Haurrak	643	626	677	726	%13,0
<b>Kostuak emanaldiko</b>					
Heldua/Gaztea	4.395	4.072	3.810	4.093	%-6,9
Haurrak	2.146	1.944	1.960	2.020	%-5,9
<b>Kostuen estaldura %</b>					
Heldua/Gaztea	%40,9	%39,2	%42,9	%39,9	%-2,3
Haurrak	%30,0	%32,2	%34,5	%36,0	%20,0

Oinarria: 2012-2015 urteetan zehar informazioa erraztu duten 46 antzokik

- Kontratazio-kostuak murrizten dira eta kostuen estaldura-tasak hobera egiten du ikusle mota bietan
- 2015ean batez besteko kontratazio kostuetan 2012tik ikusitako joera negatiboa alderantzikatu da. Horrela, heldu eta gazteei zuzendutako ikuskizunen kasuan batez besteko 4.000€ak zerbait gainditu dira, eta haurrei zuzendutakoak pixka bat 2.000€ak gainditzen ditu. Bestalde, ikusle gazte eta helduei zuzendutako emanaldi bakoitzeko batez besteko diru-sarrerak nahiko egonkor mantendu dira, nahiz eta kostuen estaldura-tasa aurreko urtearekin alderaturik zerbait murriztu den. Haurrei zuzendutako ikuskizunen kasuan, hobekuntza aztertzen da emanaldiko batez besteko diru-sarrera zein kostuen estaldura-tasan.

### 6.3. Hizkuntza

#### Helduei/gazteei zuzendutako euskarazko antzerki-programazioaren azterketa lurraldearen arabera 2014-2015


	Emanaldiak		Ikusleak		Ikusleak/ Emanaldiak	
	2014	2015	2014	2015	2014	2015
Araba	11	7	3.403	2.224	309	318
Bizkaia	75	108	9.141	9.560	122	127
Gipuzkoa	122	75	17.567	16.208	144	150

Oinarria: 2012-2015 urteetan zehar informazioa erraztu duten 46 antzokik

- Hizkuntza aldagaiaren azterketarako testudun antzerki emanaldiak soilik hartu dira kontuan.
- Sareako euskarazko antzerki programazioak garrantzitsuagoak bilakutzen dira, bai haurrei zuzendutakoa bai helduei/gazteei zuzendutakoa, mantentzen ari ziren joera gorakorrean salto eginez.
- 2015ean, euskaraz egin diren antzerki emanaldiak eta hauek erakarritako ikusleen kopurua nabarmenki gehitu dira (%7a eta %20a hurrenez hurren), 2014ko jaitsiera txikia gaindituz eta azken urteotako zifrarik altuenetara iritsiz. Euskaraz egindako antzezlanek, beraz, ondorengo emaitzak lortu dituzte urte honetan zehar: guztirako 584 emanaldi, antzokietara gerturatu diren 114.000 eta emanaldi bakoitzeko batezbesteko 195 ikusle.
- 2012. urtetik geroztik izandako bilakaera aztertzen badugu, emanaldi kopurua %16an igo dela, euskaraz egindako antzezlanak ikustera gerturatu diren ikusleak %17an gehitu direla eta emanaldi bakoitzeko batez besteko ikusleak baita gutxi gora-behera %1ean hobetu direla antzematen da.
- Euskaraz egindako antzerki-programazioa hurrekin lotu ohi da. 2015ean programatu diren euskarazko antzerki-emanaldi guztien 4 ikusletik 3 haurrak izan dira. Horrez gain, hizkuntza honetan programatu den antzerki-emanaldien %70a haurrei zuzenduta daude. Ehuneko biak 2012tik gehitu dira, eskaintza ia %15ean eta ikusle kopurua %10ean.
- Halaber, aipagarria da 2015ean ia 28.000 ikusle joan direla publiko helduari eta gazteari zuzendutako euskarazko antzerki-emanaldietara eta, nahiz eta 2014ko emaitzaz azpitik egon, emanaldi bakoitzeko ikusleen ratioak 2 ikusle heldu irabazi dituela esan daiteke (145etik habiatuta 147 ikusle-tasara iritsi da).

## 2015eko emaitzak

## 2015eko emaitzak ikusle motaren arabera: haurrak



## Emanaldi bakoitzeko batez besteko ikusleen Ratioa 2015

Euskara	218,42
Gaztelania	253,57
Testurik gabe	147,94
Bestelakoak	281,57
Euskara eta gaztelania	241,00

Oinarria: 2012-2015 urteetan zehar informazioa erraztu duten 46 antzokik

## Bilakaera 2012-2015 (%)

Adierazleak	Urtea					Bilakaera 12-15	Adierazleak	Urtea					Bilakaera 12-15
	2012	2013	2014	2015	2012			2013	2014	2015			
<b>Emanaldi kopurua</b>						<b>Ikusle kopurua</b>							
Euskara	%39,33	%42,08	%40,00	%43,71	%20,1	Euskara	%26,57	%27,12	%25,13	%32,08	%26,57		
Gaztelania	%46,50	%49,13	%48,64	%44,04	%-55,7	Gaztelania	%63,74	%66,03	%67,50	%58,20	%63,74		
Testurik gabe	%9,28	%6,26	%9,63	%10,99	%25,6	Testurik gabe	%6,85	%4,89	%5,86	%7,78	%6,85		
Bestelakoak	%1,06	%0,87	%0,58	%0,84	%0,0	Bestelakoak	%0,60	%0,62	%0,47	%0,91	%0,60		
Euskara eta gaztelania	%0,49	%1,35	%0,82	%0,17	-	Euskara eta gaztelania	%0,22	%0,92	%0,62	%0,15	--		

Oinarria: 2012-2015 urteetan zehar informazioa erraztu duten 46 antzokik

- Haur-publikoaren 2015eko emaitzak sakonago aztertuz, euskaraz egindako lanak gehien programatzen direnak (%73,9) eta ikusle gehien erakartzen dutenak direla (%77,7) antzematen da.
- Emanaldi bakoitzeko ratioari erreparatuz, beste hizkuntzatan eta gaztelaniaz egindakoak emanaldiko ikusle gehien erakartzen dituztenak dira, 282 eta 253 hurrenez hurren.
- Haur-publikoak 2012. urtetik izandako bilakaera ikasteko ikuspegia zabalduz gero, euskaraz egindako edo testurik gabeko lanen alde gindako apustua nabaritzen da. Ikusle kopuruari dagokionez, euskaraz egindako ikuskizunek 30.000 ikusle baino gehiago irabazi dituzte, eta, bestalde, ingeleraz egindako ikuskizunak ikustera animatzen direnak gero eta gehiago dira (2012tik 5 aldiz handitu dira).



## Adierazle ekonomikoen bilakaera 2012-2015

Adierazleak	Urtea				Bilakaera
	2012	2013	2014	2015	
<b>Diru-sarrerak emanaldiko</b>					
Euskara	742	654	763	802	%8,0
Gaztelania	1.992	1.669	2.087	2.123	%6,5
Testurik gabe	589	483	640	712	%20,8
Bestelakoak	510	697	558	1.798	%252,7
<b>Kostuak emanaldiko</b>					
Euskara	2.598	2.139	2.269	2.343	%-9,8
Gaztelania	4.248	4.290	4.325	4.463	%5,1
Testurik gabe	2.769	2.205	2.615	2.544	%-8,1
Bestelakoak	1.597	557	470	1.520	%-4,8
<b>Kostuen estaldura %</b>					
Euskara	%28,6	%30,6	%33,6	%34,2	%19,8
Gaztelania	%46,9	%38,9	%48,3	%47,6	%1,4
Testurik gabe	%21,3	%21,9	%24,5	%28,0	%31,5
Bestelakoak	%31,9	%125,2	%118,9	%118,2	%270,5

Oinarria: 2012-2015 urteetan zehar informazioa erraztu duten 46 antzokik

- Datu ekonomikoei erreparatuz, azken urte honetan zehar, aztertutako mota guztien batez besteko diru-sarrera eta kostuak areagotu direla ikus daiteke. Batez besteko kostuei dagokienez, euskaraz egindako ikuskizunak 2.300€ inguru daude, gaztelaniaz egindakoak 4.400€ak gainditzen dituztelarik. Honen atzean dagoen arrazoietako bat, euskaraz egindako emanaldien gehiengoa haurrei zuzenduta daudela da, eta katxeta baxuagoak eduki ohi dutela. Baina helduei/gazteei zuzendutako ikuskizunak soilik kontuan hartuta, euskarazko eta gaztelaniazko ikuskizunen arteko aldea adierazgarria da ere (3.116€ eta 4.678€ hurrenez hurren). Hau ikuskizunen formatuarekin lotuta egon daiteke, ikuskizun bakoitzeko diru-sarreretan desberdintasuna nabaria dalako ere: euskarazko ikuskizun bakoitzeko eta ikusle bakoitzeko batez besteko diru-sarrerak 882€ eta 7€ dira eta gaztelaniazkoetan 2.244€ emanaldiko eta 11€ ikusle bakoitzeko, hurrenez hurren.
- Beste hizkuntzetan egindako ikuskizunak, ekonomikoki behintzat, errentagarriagoak dira, %118ko estaldura tasa izanda, euren kostu guztiak irabazitako diru-sarreraren bitartez ordaintzen baitituzte. Orokorrean, aztertutako mota guztien estaldura-tasak hobetu dira 2012tik. Euskarazkoek bereziki, ia %20ko hobekuntza izan dute, 2015ean gastuaren %34,4a diru-sarrerekin estaltzen bait da (2012ko estaldura tasa %28,6an kokatuta zegoen).

## 6.4. Konpainiaren jatorria

### Emanaldien banaketa konpainien jatorriaren arabera, maila ezberdinetan<sup>1</sup>

	Euskadi	Gainerako erkidegoak
Hiriburuak	%36,52	%54,08
A	%36,73	%54,55
B	%66,97	%25,84
C	%78,68	%17,11


Oinarria: 2012-2015 urteetan zehar informazioa erraztu duten 46 antzokik

<sup>1</sup> %100 erdietsi arte falta diren emanaldiak atzerritar konpainiei, jatorri ezberdinetako konpainia anitzen emanaldiei edo sailkatu gabeko emanaldiei dagozkie.


- Sareako antzokietako kultura-eskaintzaren %60 hartzen dute euskal konpainiek, eta ikusleen %45 erakartzen dute.
- 2015ean Euskal konpainiek 1.020 ikuskizun eskaini dituzte Sareako antzokietan, ia 2015.000 ikusle bilduz. Antzokia gero eta txikiagoa izan ahala, lan hauen pisua programazioetan handiagoa da. Gainera, euskal konpainiek eskaintako emanaldi kopurua gehitu da, zehazki, 2012tik ia 100 emanaldi irabazi ditu urtero (829tik, gaurko 922ak arte).
- Nahiz eta euskal konpainiek emanaldi kopuruaren arabera presentzia handiagoa izan, gainerako erkidegoko konpainiek ikusle gehiago gertuarazten dituztenek izaten jarraitzen dute (%49,8).
- Kanpoko konpainiek pisu txikia mantendu dute azken urteetan, %6aren inguruan egonkorra, emanaldi kopuruan zein ikusle kopuruan, hain zuzen, 2015ean %6,8an eta %6,5an kokatuak.
- Horrela, programatutako ikuskizunen artean, ikusle helduei/gazteei zuzendutako lanetan euskal konpainien eta gainerako erkidegokoen ehunekoa nahiko antzekoa da (EAE %44,12 eta gainerako erkidegoak %48). Edozelan ere, konfirmatzen da haurrei zein helduei zuzendutako ikuskizunetan, euskal konpainiek programatutako gehiengo suposatuta arren, ez direla publiko gehien erakartzen dituztenak, gainerako erkidegoko ikuskizunetara baizik. Hala ere, desberdintasun hau helduei zuzendutako emanaldietan nabariagoa da, euskal konpainien %34arekin alderaturik, ikusleen %60a batzen dutelako.
- Azkenik, antzoki txikien eta beste tamaina handiagokoen artean desberdintasun adierazgarriak hautematen dira ere, euskal konpainien eskaintzak pisu handiagoa du antzoki txikienetan (B eta C mailak); eta maila gorenetan, aldiz, alderantzizkoa gertatzen da.

## 2015eko emaitzak

Emanaldi kopurua: 1.744



Ikusle kopurua: 475.594



## Emanaldi bakoitzeko batez besteko ikusleen Ratioa 2015

Espainia	378,86
Euskadi	210,45
Atzerria	263,69

Oinarria: 2012-2015 urteetan zehar informazioa erraztu duten 46 antzokik

## Bilakaera 2012-2015 (%)

Adierazleak	Urtea					Bilakaera 12-15	Adierazleak	Urtea					Bilakaera 12-15
	2012	2013	2014	2015	2012			2013	2014	2015			
<b>Emanaldi kopurua</b>						<b>Ikusle kopurua</b>							
Espainia	%31,96	%37,66	%39,15	%36,51	%15,8	Espainia	%41,83	%56,03	%56,12	%49,82	%16,7		
Euskadi	%51,65	%53,92	%53,13	%56,67	%11,2	Euskadi	%38,46	%37,62	%35,80	%43,65	%11,2		
Atzerria	%6,73	%6,73	%6,38	%6,82	%2,8	Atzerria	%8,24	%6,08	%6,30	%6,53	%-22,3		
Hainbat	%9,66	%1,70	%1,35	%0,00	-	Hainbat	%11,47	%0,27	%1,78	%0,00	-		

Oinarria: 2012-2015 urteetan zehar informazioa erraztu duten 49 antzokik

## Adierazle ekonomikoen bilakaera 2012-2015

Adierazleak	Urtea				Bilakaera 12-15
	2012	2013	2014	2015	
<b>Diru-sarrerak emanaldiko</b>					
Espainia	2.208	2.080	2.481	2.283	%3,4
Euskadi	962	865	827	901	%-6,4
Atzerria	957	931	760	1.100	%14,9
<b>Kostuak emanaldiko</b>					
Espainia	4.757	5.107	4.799	5.043	%6,0
Euskadi	2.944	2.452	2.493	2.616	%-11,1
Atzerria	3.501	2.835	2.868	3.081	%-12,0
<b>Kostuen estaldura %</b>					
Espainia	%46,4	%40,7	%51,7	%45,3	
Euskadi	%32,7	%35,3	%33,2	%34,4	
Atzerria	%27,3	%32,8	%26,5	%35,7	

Oinarria: 2012-2015 urteetan zehar informazioa erraztu duten 46 antzokik

- Euskal konpainiei dagokienez, batez besteko katxeta 2.359€ da emanaldi bakoitzeko; gainerako erkidegoetako konpainiei dagokienez, aldiz, batez bestekoa 5.043€ da emanaldi bakoitzeko. Bi kasutan, 2015ean kopuru horiek gora egiten dute 2014eko emaitzekin alderaturik, nahiz eta euskal konpainiek 2012ko katxetak ez dituzten berreskuratu oraindik. Helduei/gazteei zuzendutako ikuskizunetan batez besteko katxeta altuagoak antzematen dira (3.068€ eta 5.927€, hurrenez hurren).
- Era horretan, emanaldi bakoitzeko batez besteko diru-sarrerak altuagoak dira gainerako erkidegoetatik datozen konpainien emanaldien kasuan, honen arrazoietako bat sarreraren prezioa da (gainerako erkidegoen emanaldietako batez bestekoa 12,5€koa da ikusle bakoitzeko, euskal konpainien 7,1€ko batez bestekoarekin alderatuta). Bestalde, haurrei zuzendutako ikuskizunek prezio oso antzekoak dira (batezbestekoek 0,50€ko desberdintasuna dute soilik).
- Estatuko eta Euskadiko konpainien kostuen estalduratasak 2015ean zerbait berdindu dira, gaur %45 eta %34,4 ingurukoak baitira, hurrenez hurren, aurreko urteko ehunekoekin alderaturik (%51,7 eta %33,2).

## Gehien programatutako ikuskizunen Ranking

Ikuskizuna	Konpainia	Emanl.	Ikusleak
<b>Sister Act</b>	Stage Entertainment	28	21.754
<b>Erdibana / Mitad y mitad</b>	Txalo Produzioak	26	5.654
<b>Kreditua</b>	Tantaka Teatroa	26	5.169
<b>Arrastoak</b>	Dejabu panpin laborategia	18	1.967
<b>THE HOLE 2</b>	Letsgo Company & Vértigo Tours	15	9.759
<b>De cuerpo presente</b>	Glu Glu Producciones	15	3.455
<b>Pancreas / Pankreas</b>	Ez dok hiru bikoteatroa	14	2.685
<b>Etxeokak</b>	Huts Teatroa/Artedrama	12	2.452
<b>Olivia y Eugenio</b>	Pentación Espectáculos	12	5.430

Ikuskizuna	Konpainia	Emanl.	Ikusleak
<b>Gela jauziak</b>	Kukai dantza konpainia	8	1.359
<b>Refugiée poétique</b>	Claire Ducreux	8	639
<b>Txapeldun</b>	Organik Dantza Antzerki	8	1.289
<b>Divenire</b>	Logela Multimedia	6	882
<b>Voces</b>	Sara Baras Ballet	5	5.219

Ikuskizuna	Konpainia	Emanl.	Ikusleak
<b>Hiru txerritxoak eta otsoa</b>	Glu Glu Producciones	27	7.645
<b>Txanogorritxo</b>	Glu Glu Producciones	24	6.747
<b>Txo, MikMak txikia</b>	Pirritx, Porrotx eta Marimotots	22	10.153
<b>Moby Dick</b>	Gorakada	16	3.467
<b>Kixote / Quijote</b>	Markeliñe	16	1.765

Oinarria: 2012-2015 urteetan zehar informazioa erraztu duten 46 antzokik

### Helduentzako antzerkia

*Sister Act*-en 28 emanaldiak Arriaga antzokian eskaini dira eta *The Hole 2*-ren 15 emanaldiak Victoria Eugenia antzokian, baina beste guztiak Sareako hainbat antzokien artean sakabanatutako ikuskizunak dira, euren ohiko programazioaren barne. *Sister Act* zein *The Hole 2* ikuskizun desberdinak izan oi dira, produkzio handiak izateaz gain, inoiz ez antzerkira joan ohi diren ikusleak erakartzen dituelako.

### Helduentzako dantza ikuskizunak

Kasu bi izan ezik, besteak euskal produkzioak dira, eta hauen emanaldiak sakabanatuagoak daude SAREako antzokien artean. Claire Ducreux eta Sara Baras Ballet beste erkidego batzuetatik datoz eta, honetaz gain, Voces ikuskizuna 5 aldiz garatu da Arriaga antzokian. Kasu honetan, ikusleen artean ageri diren desberdintasunak, programatuak izan diren antzokien aforo edo lekuarekin lotuts dago gehien bat.

### Haurrentzako antzerkia

Kasu honetan, ikuskizun guztiak euskal produkzioak dira eta ia emanaldi guztiak euskaraz egin dira, gaztelaniazko bertsioan egin diren saio batzuk izan ezik.

## SAREako ANTZOKIEN ZERRENDA (2015)

## GIPUZKOA

Bastero Kulturgunea  
 Zaraia Aretoa (Arkupe Kultur Etxea)  
 Amaia Udal Antzokia  
 Sanagustin Kulturgunea  
 Soreasu Antzokia  
 Usurbe Udal Antzokia  
 Zabalotegi Aretoa  
 Antzoki Zaharra  
 Gazteszena  
 Lugaritz Kultur Etxea  
 Teatro Victoria Eugenia  
 El Coliseo  
 Niessen Kulturgunea  
 Biteri Kultura Etxea  
 Itsas Etxea-Hondarribia  
 Amaia Kultura Zentroa  
 M.Lekuona Kultura Etxea  
 Santa Ana Udal Antzokia  
 Herri Antzokia  
 Leidor Antzokia  
 Labeaga Udal Antzokia  
 Gurea Antzokia  
 Modelo Aretoa  
 Aita Mari Antzokia  
 Zelai - Arizti

## BIZKAIA

Zornotza Aretoa  
 Lonbo Aretoa  
 Klaret Antzokia  
 Barakaldo Antzokia  
 Social Antzokia  
 Berangoko antzokia  
 Nestor Basterretxea Aretoa  
 Berrizko kultur aretoa  
 Arriaga Antzokia  
 San Agustin Kulturgunea  
 Arriola Kultur Aretoa  
 Ermua Antzokia  
 Torrezabal Kultur Etxea  
 Lizeo Antzokia  
 Elai Alai Aretoa  
 Getxo Antzokia  
 Lasarte Antzokia  
 Auditorium Kultur Leioa  
 Ikusgarri Aretoa  
 Olalde Aretoa  
 Meatzari Aretoa  
 Serantes Kultur Aretoa  
 Sestao - Escuela de Música  
 Sondikako Kultur Etxea  
 Kurtzio  
 Zalla Zine - Antzokia

Harresi Aretoa  
 Auditorio Txema Blasco  
 Amurrio Antzokia  
 Red de teatros de Vitoria-Gasteiz (5 salas)

